


Ume elebidunen ama
eta aitentzako aholkuak

Consejos para madres y padres
de niños y niñas bilingües





Euskaldunak Bazarate



Gurasoetako batek Euskara baldin badakizue
Si tú o tu pareja sabéis Euskera



Si desconocéis el Euskera
Si desconoces el Euskera



Denentzat - Para todos y todas


Guraso agurgarriak,

Euskararen transmisioa gure seme-alaben etorkizunean ezinbestean eragingo duen giltza da. Gure bizitzako esparru guztietan erabiltzen dugun tresna baliagarria dugu euskara, hau dela eta 2013. urtean Nazioarteko Euskara eguna zela eta familientzako aholku gida txostena garatu zuen Legutioko Udalak elebitasunean adituak diren irakasleen txostenak kontuan izanik. Euskararen transmisioaren garrantzia ikusirik txosten hau argitaratu dugu ama eta aita guztientzat erabilgarria izan dadin.

Estimados padres y madres,

Vuestra aportación es indispensable en la transmisión del euskera. Sois el engranaje que permitirá a vuestros hijos e hijas vivir en euskera en el futuro. Para ayudaros en este proceso con motivo del día Internacional del Euskera el año 2013 el Ayuntamiento de Legutio, desarrolló una guía de consejos para familias de niños y niñas bilingües, basada en varios estudios de expertos en bilingüismo. Viendo la importancia que tiene el transmisión del Euskara, se ha publicado esta guía para la utilidad de todos las madres y padres.

Legutioko Udala



Euskaldunak Bazarete

Etxean

Familia da euskara ikasteko modurik naturalena, errazana, merkeena eta eraginkorrena. Gurasoen eta helduen artean euskaraz arituz gero, haurrak euskara balizko tresna dela ikusiko du txiki-txikitatik.

Euskara haurraren bizitzaren arlo guztietan

Hasiera batean familia da umearen erdigune. Denboran aurrera egin ahal, ordea, bestelako eragileak agertuko dira (zaintzaileak, haur eskolak, lagunak, aisialdia...) eta horietan guztietan ere euskarak bere lekua izan dezan saiatzea garrantzitsua da.

Euskarazko irakaskuntza

Eskolan hasi behar duenean euskarazko irakaskuntza aukeratuz gero, antzeko maila lortuko du euskaraz eta gaztelaniaz.

Motibazioa eta interesa

Haurrak euskaraz egiteko ohitura har dezan bideak jartzea eta bere ahalegina babestea eta indartzea oso mesedegarria da. Horretarako garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko, musika eta telebista eta abarretan ere euskarak presentzia izatea.




Hizkuntza gaitasuna

Hasieran haurrekin ahozko harremana izaten da gehienbat. Ondoren, pixkanaka, idatzizkoa ere izaten da, etxeko lanak egiten laguntzeko, adibidez. Haurrentzat lagungarri izango da zuek euskaraz alfabetatuak egotea, eta zuentzat, berriz oso esker onekoa.

Zer hizkuntza erabili behar dugu euskaraz ez dakitenak gurekin daudenean?

Ume elebidunak modu egokian hazteko, oso kontuan hartu behar da honako abiaburua: hizkuntza bakoitzaren erabilera mugatzea. Familia-hizkuntza euskara bada, aholkurik onena da seme-alabei euskaraz egitea beti eta, beharrezkoa bada, gurasoek euskaraz ez dakitenei itzultzea. Jarrera horrek argi erakusten du familia-hizkuntza babestu eta garatu nahi dela, eta ez dela ezkututzen, ezta hizkuntza nagusiaren menpean jartzen ere.



Gurasoetako batek euskara
baldin badakizue

Si tú o tu pareja sabéis
euskera



Etxean

Kasu honetan gurasoetako bakoitzak umeari dakien hizkuntzan egitea komeni da, modu horretan haurra etxetik elebiduna izango baita. Guraso euskaldunak umarekin euskara erabiltzea garrantzitsua da hizkuntza transmititzeko biderik naturalena, errazena, merkeena eta eragunkorrena delako.

Garrantzitsua da, era berean, euskaraz ez dakien gurasoak hizkuntzarekiko jarrera ona eta interesa agertzea.

El euskera en casa

Conviene que le habléis en el idioma que dominéis y así podréis conseguir que sea bilingüe a una edad temprana. Es muy importante que quien sepa euskera se comuniquen con el niño o la niña en euskera, porque es la forma más natural, rica, efectiva y económica de transmitir una lengua. Así mismo, es conveniente que quien no lo sepa muestre una actitud positiva y de interés hacia el euskera.

Euskara haurraren bizitzaren arlo guztietan

Hasiera batean zuek izango zarete umearen erdigune.

Denboran aurrera egin ahal, ordea, bestelako eragileak agertuko dira (zaintzaileak, haur eskolak, lagunak, aisialdia...) eta horietan guztietan ere euskarak bere lekua izan dezan saiatzea garrantzitsua da.



El Euskera en los ámbitos del niño o de la niña.

La familia no es el único medio de transmisión del euskera. Con el tiempo además de la familia tendrá otro tipo de referentes: cuidadores, educadoras, monitorado de tiempo libre...Es importante que el euskera esté presente en todos ellos.

Euskarazko irakaskuntza

Eskolan hasi behar duenean euskarazko irakaskuntza aukeratuz gero, antzeko maila lortuko du euskaraz eta gaztelaniaz.

La enseñanza en Euskera.

Si optáis por la enseñanza en euskera, garantizaréis que adquiera un nivel de conocimiento similar en euskera y en castellano.

Motibazioa eta interesa

Haurrak euskaraz egiteko ohitura har dezan bideak jartzea eta bere ahalegina babestea eta indartzea oso mesedegarria da. Horretarako garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko, musika eta telebista eta abarretan ere euskarak presentzia izatea.



Motivación e interés.

Es importante animar y reforzar el proceso de aprendizaje y el hábito de uso del euskera. Para ello es conveniente proporcionarle productos de ocio (cuentos, juegos, música, televisión, etc.) en euskera.

Hizkuntza gaitasuna

Haurra izatea bultzada ezin hobea izan daiteke bikotekide erdalduna euskara ikastera animatzeko. Bikotekide euskaldunarentzat, berriz, aberasgarria izango da euskararen alfabetatua egotea, adibidez, umeei eskolako lanak egiten laguntzeko.

Aprendizaje del Euskera.

Tener un hijo o una hija puede ser el incentivo que necesitamos para animarnos a aprender euskera y además nos ayudará a utilizarlo de forma natural.

Para quien ya sabe euskera puede ser, así mismo, un incentivo para alfabetizarse y poder así ayudarle en las tareas escolares.



Zer hizkuntza erabili behar dugu euskaraz ez dakitenak gurekin daudenean?

Ume elebidunak modu egokian hazteko, oso kontuan hartu behar da honako abiaburua: hizkuntza bakoitzaren erabilera mugatzea. Bikotekide bakar batek euskaraz badaki, ordea, biderik ohikoena dugu euskaldunak umeari euskaraz egitea eta gaztelaniadunak gaztelaniaz. Gerora, umek bi hizkuntzak garatu ahala, ondo moldatuko dira hizkuntza batean zein bestean.

¿Qué idioma debemos utilizar con nuestras hijas e hijos en presencia de personas que hablan euskera?

Un concepto muy a tener en cuenta en la crianza de los niños y niñas bilingües es el de delimitar los usos de cada idioma. Si sólo un miembro de la pareja es euskaldun, la estrategia más frecuente suele ser que cada cual hable consistentemente con el niño o niña en su idioma, puesto que a medida que desarrollen su bilingüismo, podrán recurrir fácilmente al cambio de un idioma a otro.



Neuk ere ikas dezaket euskara seme-alabekin batera?


Bikotekidea seme-alabekin beste hizkuntza bat erabiltzen entzunda hasten dira aita-ama asko eta asko hizkuntza hori ikasten. Gure artean, adibiderik ohikoena dugu umea jaiotzeaz batera ama edo aita euskara eskolak hartzen hastea, familiako hizkuntza euskara izan dadin.

Era horretako erabakia are garrantzitsuagoa da gutxiengoaren hizkuntzaz ari garenean, umeek geroan erraz-erraz ikasiko baitute gehiengoaren hizkuntza, hau da, gaztelania.

¿Puedo aprender otro idioma al mismo tiempo que mis hijos o hijas?

Hay muchos ejemplos de madres y padres que han aprendido un idioma de su pareja, oyéndoselo hablar a los hijos e hijas.

El ejemplo más común es el del padre o la madre que asiste a clases de euskera justamente al tiempo del nacimiento del niño o la niña, estableciendo como meta la uniformidad lingüística de dentro del hogar. Esta decisión es, si cabe, más importante cuando se trata de una lengua minoritaria, puesto que más adelante las niñas y los niños adquirirán la lengua mayoritaria con facilidad.



Ez dakit euskaraz. Nola lagundu ahal diet seme-alabei eskolako lanak egiten?

Galdera hau ohikoa da eskolan erabiltzen den hizkuntzan ez dakiten aita-amen artean.

Erantzuna ez da erraza, hainbat alderdi kontuan hartu behar direlako, hala nola umearen adina, hizkuntza bakoitzean daukan gaitasun erlatiboa, amen eta/edo aiten hizkuntz-gaitasuna... Oro har, bi talde egin ditzakegu:

-Euskaraz ez dakiten eta euskara ulertzen ez duten gurasoak. Halakoetan, aitak eta/edo amak umeari eskatu ahal diote eskolako lanak itzultzeko eta apurka-apurka haiekin batera ikasi.

-Euskaraz ondo jakin ez arren, zerbait ulertzen duten gurasoak. Halakoetan, irtenbiderik onena euskaraz entzutea seme-alabei eskolako lanak egiten dituztenean, eta behar izanez gero, gaztelaniaz lagundu, betiere umearekin batera ikasteko ahaleginak eginez eta ahalegintzen zarela erakusten.



¿Cómo puedo ayudarles en las tareas escolares si desconozco el euskera?

Esta pregunta suele ser muy habitual en padres y madres que desconocen el idioma utilizado en la escuela. La respuesta no es fácil, ya que para responderla hay que tener en cuenta diversos factores, como por ejemplo, la edad del niño de la niñas, la capacidad de desenvolverse en cada uno de los idiomas, la capacidad lingüística del la madre o del padre... En general, podemos definir dos casos:


-Padres y madres que no saben ni entienden euskera. En este caso, el padre y/o la madre podéis animarles a que os traduzcan los deberes, y esforzaros por ir aprendiendo poco a poco conjuntamente.

- Padres y madres que no saben expresarse bien en euskera, pero lo entienden. En este caso, la mejor opción es que escuchéis a vuestros hijos e hijas en euskera al hacer los deberes, y les ayudéis en castellano, aunque intentando siempre aprender con el niño o la niña y demostrándoles que vosotros también os esforzáis.



Si desconocéis el Euskera.

Si desconoces el Euskera.



El Euskera en Casa.

Conviene que se transmita al niño o niña el idioma que mejor se domine, que se le proporcione un modelo rico y adecuado. No hay que olvidar que cuanto mejor domine el idioma materno, más fácil le será la adquisición de otros idiomas en el futuro.

El Euskera en los ámbitos del niño o de la niña.

La familia no es el único medio de transmisión del euskera. Con el tiempo además de la familia tendrá otro tipo de referentes: cuidadores, educadoras, monitorado de tiempo libre... Es importante que el euskera esté presente en todos ellos, pues cuanto menos euskera tenga casa, más necesitas fuera de ella.

La enseñanza en Euskera.

Si se opta por la enseñanza en euskera, se garantizará que adquiera un nivel de conocimiento similar en euskera y en castellano.

Motivación e interés

Conviene que el euskera sea para el niño o niña una lengua cercana y conocida desde un principio. No podréis transmitirle el euskera, pero sí el interés y aprecio por él. Para ello es conveniente facilitarle productos de ocio en euskera (cuentos, música, juegos, vídeos, televisión, etc.)



Aprendizaje del euskera.

Tener un hijo o una hija puede ser el incentivo que necesitamos para animarnos a aprender euskera y además nos ayudará a utilizarlo de forma natural.

¿Cómo puedo ayudarles en las tareas escolares si desconozco el euskera?

Esta pregunta suele ser muy habitual en padres y madres que desconocen el idioma utilizado en la escuela.

La respuesta no es fácil, ya que para responderla hay que tener en cuenta diversos factores, como por ejemplo, la edad del niño de la niñas, la capacidad de desenvolverse en cada uno de los idiomas, la capacidad lingüística del la madre o del padre...

En general, podemos definir dos casos:

- Padres y madres que no saben ni entienden euskera. En este caso, el padre y/o la madre podéis animarles a que os traduzcan los deberes, y esforzaros por ir aprendiendo poco a poco conjuntamente.

- Padres y madres que no saben expresarse bien en euskera, pero lo entienden. En este caso, la mejor opción es que escuchéis a vuestros hijos e hijas en euskera al hacer los deberes, y les ayudéis en castellano, aunque intentando siempre aprender con el niño o la niña y demostrándoles que vosotros también os esforzáis.

¿Puedo aprender otro idioma al mismo tiempo que mis hijos o hijas?

Hay muchos ejemplos de madres y padres que han aprendido un idioma de su pareja, oyéndoselo hablar a los hijos e hijas.

El ejemplo más común es el del padre o la madre que asiste a clases de euskera justamente al tiempo del nacimiento del niño o la niña, estableciendo como meta la uniformidad lingüística de dentro del hogar. Esta decisión es, si cabe, más importante cuando se trata de una lengua minoritaria, puesto que más adelante las niñas y los niños adquirirán la lengua mayoritaria con facilidad.


No hablamos euskera. ¿Cómo podemos ayudar a nuestros hijos e hijas a ser bilingües?

Las madres y padres podéis ayudar a vuestros hijos e hijas en el aprendizaje de cosas que vosotros y vosotras no sabéis.

Si sólo habláis castellano pero deseáis que vuestras hijas e hijos aprendan euskera, ofrecerles oportunidades para usar el idioma fuera del ámbito escolar, por ejemplo, participando conjuntamente en actividades culturales o de ocio, contratando a una persona euskaldun para que les cuide... ya que es muy enriquecedor que conozcan a otras personas que hablen euskera fuera del ámbito escolar, para escucharles y conversar con ellas.



Denentzat! ¡Para todos y todas!




Zein hizkuntzatan ikus-entzun behar du umeak telebista?

Hizkuntza jakin bat erabiltzeko aukera gutxi dagoenean, bideoak eta telebistako saioak lagungarriak izan daitezke hizkuntza lantzeko. Euskarazko bideoek, esate baterako, lexikoa lantzeko balio dezakete, baina esan behar da telebistak ez duela asko laguntzen hizkuntzaren garapenean. Izan ere, telebista hizkuntza ikasteko baliabide pasiboa da, eta beraz, umeak hizkuntzaren hartzaille hutsak dira.

¿ En qué idioma debe escuchar y ver mi hijo o hija la televisión?

Cuando no hay suficiente exposición a un idioma, el uso de videos y programas televisivos puede ser un suplemento muy útil a la dieta lingüística de niños y niñas. Los videos en euskera pueden contribuir a aumentar su vocabulario.

De todas formas, hay que apuntar que la televisión no contribuye demasiado al desarrollo lingüístico, puesto que constituye un medio pasivo y, en consecuencia, se convierte en meros receptores del lenguaje, no en productores.



Gure seme-alabak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?

Euskara eta gaztelania nahastea arrunta da hizkuntzen garapenaren hastapenetan. Ume gehienek euskara eta gaztelania nahasten dituzte hainbat egoeratan eta hainbat lagunekin, baina, oro har, nahastea desagertu ohi da hizkuntza biak garatzen diren neurrian.

Auzi horretan, familiak nabarmen lagundu ahal die umeei hizkuntzak banatzen, hizkuntza bakoitzaren erabilera-eremuak zedarritu edo bereizteko ahaleginak eginez. Dena dela, oso garrantzitsua da umeari errieta ez egitea erratzen den bakoitzean eta haren komunikazio-ahaleginak hutsegitetzat hartzea, horrek ondorio txarrak ekar ditzakeelako.

Nuestra hija o hijo mezcla el euskera y el castellano. ¿Qué debo hacer?

Mezclar los dos idiomas es normal en los primeros momentos del desarrollo bilingüe. Hay distintos momentos y distintas maneras de mezclar los idiomas pero, en general, este fenómeno desaparece a medida que se desarrollan ambos idiomas.

La familia puede ayudar de manera notable en el proceso de separación, esforzándose por delimitar los usos de cada idioma. En cualquier caso, lo más importante es no criticarles en ningún caso y no hacerles ver como errores sus esfuerzos de comunicación, ya que ello puede tener efecto negativo.




Nola lagundu alabari edo semeari euskaraz irakurtzen eta idazten?

Hasteko ete bat, gurasoek oso argi eduki behar dute irakurketa eta idazketa jarduera atseginak izan behar direla umeentzat. Hau da, irakurketa nahiz idazketa saioak erakargarriak izan behar dira umeentzat, eta ingurua ulertzeko bidea eman behar diete. Umezaroan, irudimena lantzeko liburu bizi, erakargarri eta barre-eragileak beha dira. Bultzatu seme-alabak euskaraz irakurtzera eta idaztera, betiere helburu bati zein mezu bati lotuta eta, batez ere ez azpimarratu etengabe umearen ortografia edo gramatika akatsak.

¿Cómo puedo ayudar a mi hija o hijo a aprender a leer y escribir en euskera?

Ante todo, los padres deben de tener muy presente que la lectura y la escritura deben ser experiencias agradables. Es decir, deben ser interesantes para el niño o niña, estar relacionadas con su mundo de experiencias y deben darles oportunidades de comprender mejor su propio mundo. En la niñez se necesitan libros imaginativos, vivos e interesantes, que hagan reír a las niñas o niños y estimulen su imaginación. Anima a tus hijos e hijas para que lean y escriban en euskera buscando propósito y un mensaje, y sobre todo, no les señales constantemente sus errores gramaticales.



Non lortu seme-alabentzako euskarazko liburu eta beste gai batzuei buruzko informazioa?

Euskarazko argitalpen ugari aurki daitezke merkatuan ume eta gaztetxoentzat, oro har, adinaren arabera sailaktuta. Dena den, euskarazko liburuak aurkitzeko erraztasuna kontuan hartuta ere, aukera bikaina da herri liburutegia erabiltzea. Herri liburutegia doako zerbitzua da eta guztiz baliagarria, erabiltzen baldin bada, behintzat. Harrez gain jakizu, urtero-urtero Euskarazko Produktuen Katalogoa argitaratzen dela, Gabon inguruan. Bertan, informazio baliagarria aurkituko duzu euskarazko liburu, diska eta beste gai batzuei buruz, batez ere, argitartu berri direnei buruz (www.katalogoa.org).

¿Dónde puedo obtener información sobre lugares para conseguir libros y otros materiales en euskera para mis hijos o hijas?

En el mercado se pueden encontrar numerosas publicaciones en euskera para el público infantil, generalmente clasificadas en función de la edad. De todos modos, aun considerando la facilidad para obtener libros escritos en euskera, es importante hacer uso de la biblioteca pública. Esta constituye un valioso servicio gratuito, pero solo tendrá utilidad si verdaderamente la usamos. Además, en fechas cercanas a la Navidad se publica anualmente un catálogo de productos en euskera en el que podrás encontrar información sobre libros, discos y otros materiales, atendiendo especialmente a las novedades del año (www.katalogoa.org).



legutioko udala

legution euskarak

365 egun ditu!